

## Ugalde eta Velez de Mendizabal bi funtzionari-ipuingileen lanak aztergai

Silvia L.

*Egin*, 1985-02-03: 27.

Bi ipuin liburueta arituko gara gure gaurko komentaketan: Martin Ugalde-ren "Mantal Urdina" eta Josemari Velez de Mendizabalen "Zeu zara, Carmen".\* Biak atera ziren pasa den abenduko azokan. "Erein"go literatura sailean: baina guzti honetaz gain, elkarrekin jartzera bultzatu gaituen lehenengo arrazoia egileen ihardutea Eusko Jaurlaritza izan da: jakina denez eta oker ez bagadu, Kultura Sailean.

Martin Ugalde idazle ezaguna da guretzat gaztelaniaz, idatziriko zenbait lanengatik. Hegoamerikan bizi izana, dioenez enkarguz bakarrik lan egiten du (idaztetik bizi bait da), eta hori dela eta, biziki eskertu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari emaniko beka, zeinari esker "Mantal Urdina" idatzi duen. Liburu honen ardatza zaharreganako arduraren litzateke: ipuin guztietan zahartzaroko pentsa-sentimoldeak aurre egiten dio gazte jenerazioarenari. "Mantal urdina" izeneko ipuinean, adibidez. Engraxiri ezinezko zaio bere errainak erregalatu dion mantala ikustea ere, dakarzkion gogorapenak zoratu egiten bait dute. Baina gogorapen-sentimendu hauek ezin inori kontatu: Engraxirentzat daukaten karga-emozionala ez lukete errainak ezta semeak ere ulertuko. Azkenik, ia ipuin guztietan bezala, heriotza da nagusi. "Mugarri galduen itsu-mundua" ipuinean antzeko zerbait gertatzen da: apaizaren zerbitzuan dagoen atsoa oso zahartuta dago eta bota egin nahi dute. Eta berriro heriotza. Ipuin honek "Irun Hiria" sariketa irabazi zuen pasa den urtean. Liburuan bertan agertzen den beste ipuin saritua. "Erregetako izpiritu beltzarana" izenekoak "Ignacio Aldecoa" literatur saria irabazi zuenak denborak eragindako kalteak agertzen ditu. Eta etengabe, denboraren iragatearen gainetik, dena lehen bezala irautea nahi izatea. iraganaren ilusioa, hona liburuaren beste ardatz bat. Errege egunean. Baxiliren poza bakarra zen Xaturrek, besteak nola jakin gabe, zapato garbituetan uzten zizkion erregaluak ikustea. Urteak aurrera joan ziren Errege egun batetan Xatur hilik agertu zen arte. Ohitura hura gordetzeko grinak sorpresa bat emango zion Baxiliri.

Gainerako ipuinetan, bestela, kontraste bidez adierazten zaigu zahartzaroko nahi eta ezina: "Eguzkiaz jertsea ehotzen" izenekoan, adibidez, Joxe eta Anttoniren semea, "botere bereziak" zituen Beñat ("botere" horiek poesiarako joera besterik ez ziren) gorantza doa bere idealtasun eta bizi den arbolarekin batera, norberak aukeratzen duen bizimodu kunplituaren metafora: gurasoak, aitzitik, behera, zahartzaroren amildegian behera.

"Gizontzarra" ipuinean frustrazioa agertzen zaigu hildo bezala. Kointzidentzia batzu bildu dira bi agure ezezagunen inguruan ustekabezko amaiera triste bat suertatuz: haietako baten heriotza. Hauxe izan da beharbada gehien gustatu zaigun ipuina, eta hildako Cortazar-en kutsua atzeman diogu.

---

\* Arazo teknikoengatik, idazlan hau ez dago osorik. Hutsuneen lekuan '[?]' adierazpidea erabili dugu.

Falta zaigun ipuina, "Suge-gorriak ilupean zain", Euskal Herrian hain hedaturik dagoen mesfidantza baten berri ematen digu: herriko batek komandoa salatu duenentz... giro honetan etsaizentzat dira beti irabaztekoak.

Liburu honekin amaitzeko, aipatu ipuinek sortzen duten etsipen hori, orokorrean, eta ekintzaren azpian dijoan beste istorio arruntagoa, ederki isladaturik: zaharrek bizi izaten dituzten abandono egoerak. Merezki du, bai, instituzioe dirua honelakoetan gastatzea.

Beste ipuin bildumara pasatuz, Josemari Velez de Mendizabalen "Zeu zara, Carmen". Egilea aski ezaguna da Arabako inguruetan, gehiago agian politika lanagatik literarioagatik baino; orain delutxi, hain zuzen, Arabako Foru Aldundiak argitaratu zuen Velez de Mendizabalen egunkari-artikulu bilduma, euskaraz. Liburu honetako ipuin gehien hildoa Arabako herriren batetan garatzen dela dirudi, idazleak oso ongi ezaguturik. Agian horregatik ipuinak baino gehiago, zenbait egoeren isladapenak dira istorio hauek, deskribapenak. Hauxe da gertatzen dena, adibidez, "Ixidoro" izeneko ipuinarekin: ia ekintzarik gabeko ipuin honetan "kostunbrismo" batean erortzen da. "Biktor" ipuinean berdin-berdin gertatzen da: "tipoak" deskribatu besterik ez da egiten. Bada, bestalde, beste ipuin mota. "Zeu zara, Carmen" izenekoan Carmen, botikariaren alaba txikiak berrogei ta bost urte ditu eta neskazaharra dago. Arratsalde batean, bakarrik gelditu delarik, bere bizitza gogoratzeari ekin dio eta bere burua akabatzea erabakitzen du. "Federikoren alaba" ipuinean bere alabaren etorrera aita hil dela eta tartekatzen dira zenbait denbora aldaketa edo jauzi direla medio.

"Urrezko eztaiak" izenekoak, bestalde, erregalia gisa idatziriko eskutitza dugu, erabat hunkigarria non zahartzarotik ikusirik elkarrekin bizi izandako bizitza oso baten inbentarioa egiten bait da. Hauxe da liburuaren kontakizunik laburrena.

Liburuaren azkenengo ipuinean, "Sugea eta arranoa", gizonaren gainean eginiko fabula antzeko bat ikus dezakegu: lanean ari den gizon baten ikustetik sortzen zaizkie arrano eta sugeari ipuin honetan zehar tartekatzen dituzten burutazioak.

Velez de Mendizabalen liburuaren ikuspegi orokor bat ematen [?] gara, eta zenbait ipuinetan argumento eza nabarmendu dugu. Argitu behar, noski, tipoen deskribaketa, berez, ez dela hemen txartzat hartzen. Honetaz gain badira zenbait eza gehiago: idaztanka edo "estiloa" delakoa behin eta berriz erortzen da eskema linguistikoa berdinetan; idazleak ez du lortzen hizkuntzarekin jokatzeko hori, edozein literaturaren oinarria. Horregatik agian egiten zaigu irakurketa hain astuna.

Ez da hau lekurik egokiena azterketa sakonagoak egiteko, hemen lehentasuna daukana informazioa bait da. hala ere, isuririko eritzien balioa ez dugu uste alferrikakoa denik. Egin dezagun, beraz, honetaz aparteko "ex cursus" txiki bat: ez zaigu gaizki iruditzen liburu honen argitaratzea. Gaizki iruditzen zaiguna, ordea, salgarria bakarrik argitaratzen duten argitaletxeen jokaera da; esan nahi da, erizpidea oraingoan ez dela kalitatea bakarrik, idazlearen izena baizik, beste faktore batzu gehiagoren artean (ez dakit, bestela, zergatik harritzen naizen). Idealista -edo tuntuna- ez diezadazuen dei, proposatuko nukeen bidea errentabilitate hori epe pittin bat luzeagora bilatzea litzateke.